

Liburutegiak esku artean

ANAKOZ AMENABAR. GASTEIZ

Gero eta finagoa, arinagoa, osatuagoa eta merkeagoa. Gure artean da liburu elektronikoa, eta, antza, ez du atzera bueltarik. Papera ez du berehalakoan ordezkatzeko, baina poliki-poliki ari da bere lekua hartzen. Gasteiztar askok aste honetan izan dute lehendabiziko aldiz eskuetan izateko aukera, Artiumen antolatu duten E-book esperientzia: paperetik pantailara izeneko jardunaldiak esker.

Aditu batzuen arabera, hamar urte beharko ditu liburu elektronikoak paperean irakurtzen denaren zati handi bat bereganatzeko; hogeitaz hamar urte, beste batzuen esanetan. Herritarrak gerturatzen ari dira, baina pentsatu baino mantsoago. Joan diren Eguberrietako salmentak ez ziren espero ziren modukoak izan. "Edukia da arazo nagusia orain. Sarean liburuak bilduko dituzten hodeiak sortzearekin batera hasiko da euskarriaren arteko lehia, dio Luis Collado Google Books taldeko zuzendariak.

Ikusmin handia piztu dute jardunaldiak, Artiumeko hitzaldi aretoa lepo bete arte. Profesionalak eta zaleak, denek izan dute tresna elektronikoa ezagutu eta erabiltzeko aukera. Koaderno baten tamaina eta 220 gramo pisatzen duen tresna batetik bestera ibili da. "Kontuan izan behar da hauxe etortzeke dauden tresnen lehendabizikoa dela. Duela hogeitaz hamar urteko sakelakoaren antzera, lehena, azaldu du Juan Gonzalez Grammata enpresako zuzendariak.

Teknologiaren abiada ezin geratuta, merkatura atera orduko zaharkituta geratzen dira tresnak. Batak edo besteak merkaturak "irentsi bitartean etengabe agertzen dira berriak. "Izugarria da lehia. Papera gainditzeko saiatu behar dugu, eta hoberen egiten duenak eramango du saria, dio Gonzalezek. Apirilean are gehiago zorrotzko da lehia, liburu elektroniko sorta zabala merkaturatuko baitute.

Gauean pisurik gabe milaka liburu eramango, testua nahi den tamainan jarri, dirua aurreztu. Grammata enpresako zuzendariaren esanetan, onura ugari ekarriko ditu liburu elektronikoak eta "iraultza izango da datozen bi urteetan. "Liburutegiak ez du zentzurik izango hemendik urte batzuetara, gauean eramango dugulako. Eskolako motxila ere soberan egongo da, aipatu du Gonzalezek. Liburutegiak hasi dira garai berrietara moldatzen. Muskizkoak (Bizkaia), esaterako, tresna elektronikoak eskaintzen dizkie irakurleei.

Ikusleen artean, baina, zalantza eta kezka ugari dago. "Eta haur literaturarekin zer gertatuko da? Euskarriak hainbesteko garrantzia duen liburuetan, adibidez?, galdetu du emakume batek kezkatuta. Hamaika zalantza argitu gabe dituzte oraindik. Jose Antonio Andresek, adibidez, ez du uste oraingoz beharrezko tresna denik. "Gaur-gaurkoz ez diot aukerarik ikusten. Ez da liburu bezain eroso, eta prezioak oraingoz ez du laguntzen.

Pilar Etxeandiak ez du oraingoz liburu elektronikorik nahi, baina etorkizun oparoa ikusten dio. "Ez dut uste papera ordezkatzeko moduan dagoenik, ez oraindik bederen. Zer oparitu behar dut nik, hemendik aurrera?.

Ikusleen artean bada dagoeneko liburu elektronikoa duenik ere. Duela urtebete erosi zuen Fernando Ferreira gazteak, 250 bat euroren truke, eta pozik dago erosketarekin. "Zaila ikusten dut liburu ordezkatzeko, baina hainbat unetan oso eroso da erabiltzeko.

Euskal Herriko editoreek ere hartu dute liburu elektronikorako bidea, joan den Durangoko azokan aurkeztu bezala, eta dagoeneko hamaika liburu aurki daitezke. Hasi baino ez da egin.